

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2020):	8.808 Emak.: %48,2 Giz.: %51,8
Batez besteko adina:	Emak.: 46,7 Giz.: 43,5
Jaiotza tasa:	%8,6
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 22,4
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%35
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%16,4
Bizi itxaropena:	Emak.: 86,1 Giz.: 80,8
Zabalera:	450,83 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Erdialdeko Eskualdeak (ikus mapa)
Udalerriak:	Beire, Caparroso, Murillo el Cuende, Olite, Pitillas, San Martín de Unx, Ujué

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Erriberrikoa da adierazleotan portzentajerik handienak dituzten Osasun Eskualde Oinarrizkoetako bat: DBHko graduatu-titulurik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteak (% 21,5) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumeen etxeak (% 41,9). Gainerako adierazle soziodemografikoak Nafarroako batezbestekoaren inguruan daude.

Osasunari dagozkion emaitzak. Erriberriko Osasun Eskualde Oinarrizkoa emaitzarik onenak dituzten eskualdeen % 25,0ren artean dago kronikoen estrategian lehenetsiriko 3 patologia edo gehiago dituzten emakumeetan (%2,6) eta pisu gehiegi duten

6tik 9 urtera arteko nesketan (% 27,4). Mutiletan, ordea, Nafarroako emaitzarik okerrenen artean dago adierazle horren emaitza (% 35,4). Era berean, emaitzarik okerrenak dituzten eskualdeetako bat da datuotan: antsiolitikoaren eta antidepresiboaren kontsumoa emakumeetan (% 19,0) eta TA neurtzen duten hipertentsiodunak (% 41,5).

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doituak* Erdialdeko Eskualdeei dagozkie (LAP zonifikazioa); Artaxoako eskualde oinarrizkoa eskualde horietan dago. Erdialdeko Eskualdeetan adierazleotan daude emaitzarik onenak: gizonen fruta- eta barazki-kontsumoan (% 30,7), gizonen sedentariismoan (% 11,7), ongizate orokor txikia emakumeetan (% 23,0) eta eguneroko tabako-kontsumoan (% 11,3 emakumeetan eta % 13,6 gizonetan).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.


Osasunerako baliabideak

Komunitatean badira osasunerako zenbait aktibo ahalmena dutenak norbanakoek, komunitateek eta herriek osasuna eta ongizatea mantendu eta sortzeko duten gaitasuna indartzeko (salutogenesia).

[-> Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 5-6: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Estat; 4: Errenta. Estat; 7: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatien Informazio Geografikoko Sistema); 8, 23-26, 29-30: Oinarrizko osasun-laguntza; 9-20: ESYCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 21-22: NOPLOI; 27-28: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (9-20) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak (p < 0,05) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbilitatearen eta osasun sistemaren adierazleetarako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren balioarekin gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5 eta 6.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **7.** Baso-azalaren %; **8.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **9 eta 10.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 40,4 eta gizonak 20,4); **11 eta 12.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 20,1 eta gizonak 14,5); **13 eta 14.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 34,5); **15 eta 16.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 13,8 eta gizonak 15,3); **17 eta 18.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 26,3 eta gizonak 15,8); **19 eta 20.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 47,2 eta gizonak 61,6); **21 eta 22.** Pisu gehiegi - gehiegizko pisua edo obesitatea duten 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEk haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 33,5 eta gizonak 31,6); **23 eta 24.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: emakumeak 7,9 eta gizonak 10,1); **25 eta 26.** Kronikoan estrategian lehenetsitako 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 3,2 eta gizonak 6,1); **27 eta 28.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 19,2 eta gizonak 8,9); **29.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **30.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.